


# Barkatu, aita!

*Antton Kazabon*



Desclée De Brouwer

## ITSASO MADARIKATUA



—Etxera joan behar dugu, Iratxe! Laster gaua gainean dugu, eta goazen hemendik ilundu baino lehen.

—Zu joan, aita. Joan lasai. Ni geroxeago joango naiz. Ez daukagu presarik. Zuk afaria prestatzerako han naiz.

—Ez, Iratxe, elkarrekin etorri gara, eta elkarrekin jango gara. Gaurkoz aski dugu. Ez da ona horrenbeste denbora hemen eserita itsasoari begira egotea.

—Ez dela ona? Ba, niri on egiten dit. Hemen asko lasaitzen naiz ama gogoratzuz.

—Ederki. Niretzat ere kontsolagarria da, Iratxe, baina egunero-egunero, orduak eta orduak hemen hondarretan eserita, ba...

## Barkatu, aita!

—Esan dizut, zu joan lasai, aita. Ni gustura nago. Gainera bakarrik egotea gustatzen zait.

—Alferrik ari zara. Itsasoak ez digu ama itzuliko. Gezurra badirudi ere, hainbeste maite zuen itsasoak betiko eraman du. Badakit gogorra dela, baina hori da egia bakarra. Eta ez da ona beti bakarrik egotea. Lagun pila bat dituzu eta haiekin egon behar zenuke gehiago.

—Lagunekin ere egoten naiz, aita, eta oso gustura gainera. Baina bakarrik ere egon nahi dut. Oraindik ez dut ulertzen nolatan deskuidatu zen. Ezin dut sinetsi. Igerilari trebea zen. Oso ona zen uretan, aita. Niri amak erakutsi zidan igeri egiten. Hamaika aholku eman ere bai. Eta gero, zer da, eta bera eraman olatuek.

—Bai, niri ere amak erakutsi zidan igeri, Iratxe, elkarrekin hasi eta berehala. Nik sekulako beldurra nion itsasoari. Amak kendu zizkidan beldur horiek, uretan lasai sentitzen erakutsi zidan. Eta nire izuak uxatzea lortu genuenean, berehala ikasi nuen ur gainean flotatzen. Baina horrek ez

## Itsaso madarikatua

du erremediorik, Iratxe. Horrek ez dauka bueltarik. Munduko amarik onenarekin bizitzeko zoria izan duzu, eta horrekin konformatu behar duzu. Goazen etxera!

—Munduko amarik onena, baina orain ez dut amarik, aita. Badira hamar egun amarik gabe gaudela, eta ezin naiz ohitu. Eta ezta nahi ere. Horregatik nago gustura hondartza honetan, hemen amarekin sentitzen naizelako.

—Beno, ongi da. Egin nahi duzuna. Baina ilundu baino lehen etxean nahi zaitut. Beraz, atera kontuak, Iratxe. Eta uretan ez sartu, mesedez! Ezta okurritu ere!

—Ongi da, aita. Gero arte!

Ez dakit zergatik ez nauen bake santuan uzten, hementxe bakar-bakarrik egoten. Batzuetan gustura egoten naiz aitarekin, baina egun hauetan bakarrik egoteko gogoia izaten dut. Hori ez dut uste txarra denik. Ziurrenik, aitag nire hobe beharrez egiten du, baina batzuetan astun samar jartzen da.

## Barkatu, aita!

Badakit aitag ere emaztea galdu duela, eta horregatik triste dagoela oso, baina beti ezin gara elkarrekin egon. Halere, aitag ez dakit beste emazterik aurkituko duen, baina nik behintzat, ziur ez dudala berriro nire ama besarkatzeko aukerarik izango.

Gogorra izan zen oso. Hain igerilari trebea, eta urak eraman. Oraindik ez dut ulertzen, ez zait buruan sartzen. Eta gainera, horrelaxe gertatu behar izan zuen, aita eta bion aurrean. Gu lasai-lasai baloiari ostikoka itsas ertzean, eta ohartzera... ama gaixoa itota hondar gainean. Sorosleek ahal zuten guztia egin zuten, aitag ere bai, baina dena alferrik.

Ez dut burutik inoiz borratuko irudi triste hura. Une batez uste nuen aitag erotu egin behar zuela. Haiek negar zotinak eta haiek garrasiak. Nik ez nuen negarrik egin. Amesgaizto bat zirudien, eta ni amets horretatik kanpo nengoela uste nuen. Oraindik ere hala pentsatzen dut. Ezin da egia izan. Itsaso madarikatua!